

<b>JATORRIA</b>	
EGILEA	MIKEL HUERTA ROMERO
IZENBURUA	INTERNETERA SARRERA
ARGITALETXEA/Webgunea	<a href="http://www.inforbh.com/">http://www.inforbh.com/</a>
URTEA	2009
ORRIALDEA (K)	
ISBN	
<b>TESTU-MOTA</b>	
OINARRIA	TESTU INPRIMATUA
FORMATOA	TESTU MISTOA
MOTA	AZALPENEZKOA + GRAFIKOA
ERABILERA	PRIBATUA

## ESTRATEGIAK

### IRAKURRI BAINO LEHEN

1. **Irakurmenaren helburua:** Interneteko funtzionamenduari buruz informazio gehiago ezagutzea.  
**Irakaslearen helburua:** Interneten osagaiak eta zerbitzuak (web, posta elektronikoa eta txat-a) ezagutzea
2. **Irakurri aurretiko hipotesiak egitea:** Ilustrazioa aintzat hartuz (mapamundi eta ordenagailu sarea) pentsatu zeri buruzkoa ote den testua.
3. **Era askotako aurretiko ezagutzak aktibatzea:**  
Ikasleei galdetuko diegu zer dakiten Interneti buruz, zertarako erabili duten...  
Galderak erantzun ondoren, denen artean definituko dugu beraien hitzekin zer den sare bat, zer osagai behar diren Interneten lan egin ahal izateko, zer den posta elektronikoa, txat-a, webgunea...

### IRAKURRI BITARTEAN

4. Nork bere buruari galderak egitea: hiztegiari eta laburdurei buruzko galderak sortuko dira. Denen artean azalduko dugu ADSL, WIFI, modem edo router, ISP... zer diren.
5. Informazio garrantzitsua markatzeko estrategia materialak
6. **Eskema egitea**, funtzioei begira:
  - Zer da Internet: Sarea. Konexio motak.
  - Interneteko osagaiak:
    - Ordenagailua
    - Konexio-linea
    - Modem edo Router.
    - Interneta Zerbitzu-Hornitzailea (ISP)
  - Interneko zerbitzuak:
    - WEBa
    - Posta elektronikoa
    - Chat-a

## OHARRAK

Maila honetan asmoa ez da hiztegia argitzea, baizik eta zertarako erabiltzen den ulertzea.

## IRAKURRI ONDOREN

7. **Berriz irakurtzea:** Agertzen den informazioa hobeto ulertzeko.
8. **Inferentziak egitea:** Testuan agerturiko programen zerrenda emanda (Internet Explorer, Firefox, Hotmail, Yahoo, Outlook, MSM Messenger) hurrengo taula beteko dute, testua bere osotasunean ulertzeko:

Adierazi zerekin lotura duten hurrengo programek

	WEB	Posta elektronikoa	Chat
Internet explorer			
Firefox			
Yahoo			
Hotmail			
Outlook			
MSM Messenger			
	WEB	Posta elektronikoa	Chat
Internet explorer	X		
Firefox	X		
Yahoo	X	X	
Hotmail	X	X	
Outlook		X	
MSM Messenger			X

## OHARRAK